

Bakarne

Maidar Iantzi
Goienetxe

Bakarne Uriarte Aurrekoetxea naiz. Sondikan bizi naiz, atez ate gurasoekin. Biek dute mendekotasuna, oso altua, eta justu orain deitu digute esateko egoitzan lekua daukatela». Lantokitik lantokira, bulego itxi banaren intimitate eta lasaitasunean izan dugun solasaldi goxoa hunkituta eman dut. *Spoiler*-a eginez kontatuko dizuet Martxoaren 8rako erreportaje bat prestatzen ari garela, zaintza erdigunean jarrita. Jasotako testigantzetako bat da egoera gogorra bizitzen ari bada ere alaitasuna eta indarra

transmititzen dituen emakume honena. Gurasoekin txandaka egoten diren Bakarne eta bi anai-arrebek haienganako duten maitasunak animatu nau.

«Eredu izan dira pentsatzen duguna botatzeko nahiz eta jendeari gustatu ez. Zoragarriak izan dira beti eta berdinberdin jarraitzen dute». Benetan nekatuta daudela aitortu dit, gauak aita-amekin pasa eta biharamunean lanera joan behar dutelako, eta horrela egun batean eta bertzean eta bertzean. «Okerrena psikologikoa da». Balio hagitz ttikia ematen zaio zaintzeari. Lan ordaine-

zina egiten duen Barakaldoko Argitan Emakumeentzako Aholku Etxeak bere balantzean nabarmentzen du hori: jasotzen dituzten lan kontsulten %90 etxe-ko langileenak dira, horietako aunitz etorkinak, zaintzen duten pertsonarekin bizi direnak eta askotariko diskriminazioak sufritzen dituztenak. Elkarrizketatu dugun etxeko langileak nahi bai, baina ezingo du grebarik egin; Bakarnek, «momentu honetan ez nago munduan», onartu digu. Ahal dugunok, ahal dugun moduan, goazen grebara, Bakarne bakar eta guztiengatik ere bai. •

Ekai, maite zaitugu

Xabier Mikel
Errekondo

Urteak borrokan eman ondoren bere buruaz beste egin du Ekaik, 16 urteko nerabe ondarrutarrak. Gertakari latza benetan. Tripetan kendu ezinezko minbera larria sor beharko liguke guztioi. Baina nago hirugarren pertsonan sentitu dugula ezbeharra, arazoa soilik berea bailitzan eta pittin bat akaso besteena.

Borrokan besteak beste errolda aldatzeko, hormona tratamendua jasotzeko edo formakuntza integrala emateko ikaskideei, gurasoei eta irakasleei hasieratik ongi hartu zuten ikastetxean. Nola

egin aurre halako presio eta frustrazioei? Nola 16 urterekin?

Chrysallis eta Save the Children erakundeek eskatutako lege baten babesa beharrezkoa da, alabaina, ez nahikoa. Ekaik argi zuen gakoa jendartearen begiak irekitzean dagoela, prejuizioak gainditzean eta mentalitateen iraultzan.

Desgaitasunaren, aniztasunaren, parekidetasunaren eta ezberdintasunaren arloan lanean diharduten elkarteek *lobby* lan bateratua egin eta botere publiko zein alderdi politikoak mugiarazi

behar dituzte, behingoz gizarte inklusi-boa eraikitzeari ekin diezaioten, diezaiogun.

Mundu bat lan daukagu aurretik, alta gaur bertatik behar ditugu eskubide eta aukera berdintasuna bermatu, eta, hain zuzen horregatik, guztia lortu zain geratu barik has gaitezen tiraka mutur batetik. Galeanok esan bezala, jende txiki askok toki txikietan gauza txikiak egiten, mundua alda dezake.

Mina eta sufrimendua indar bilaka dezagun mundu hau aldatzeko, xingola beltza kolore anitz biziz blaitzeko. •